# ERABAKIA, 2011ko ABENDUAREN 22koa, UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUARENA, PRACTICUMAGATIK AITORTUTAKO IRAKATS BETEBEHARREI BURUZKOA

Gobernu Kontseiluak, 2006ko urriaren 5eko bilkuran, irakats lanagatik, ikerketagatik eta gestioagatik lanaldi osoa duten irakasleei irakats betebeharretako kredituak aitortzekoa zen erabaki proposamena onartu zuen. Proposamen hartan ez zen sartzen, egun indarrean diren ikasketa planekin bat etorrita, practicum eta kanpoko praktika nahitaezkoetarako jarduerengatiko kreditu aintzatespenik, nahiz eta gai hori berori ekainaren 15eko gobernu kontseiluan eztabaida eta azter zedin proposatutako dokumentuan ageri zen. Atal hori proposamenetik kanpo geratu zen, hain zuzen ere, iritzi baitzen, kredituen aintzatespenerako jasotako gainontzeko jardueretan ez bezala, jarduera hau kreditutan aintzatesteko aldaera ez zela geratu behar, gainontzeko jarduera guztien modura, oro har, aldez aurretik ezarritako ikerketa gutxienekoak betetzearen menpe.

Gobernu kontseiluak 2007.eko apirilaren 17an egindako bileran, erabaki proposamenerako zirriborroa aurkeztu zen berori aztertu eta aurkeztu beharreko emendakinak aurkez zitezen. Emendakinok igortzeko epea amaiturik, beroriek aztertu ostean, hauetako gehienak sartu dira testuan gobernu kontseiluaren 2007ko maiatzeko bileran aurkeztu eta onesteko helburuaz. Proposamena ez zitzaion azkenean kontseiluari aurkeztu, nahiz eta *de facto* Irakasleen errektoreordetzak kredituak esleitzeko formula berria 2008-2009 ikasturtetik erabili izan duen kredituak zenbatzerakoan.

Honez gain, gradu berriak eta unibertsitateko master ofizialak ezarrita, practicum edo kanpoko praktika nahitaezkoetan egindako orduen kopuruak nabarmen jo du gora. Jarduera hauek zeinek bere ikasketa planaren barruan nahitaezko gisa egiten dihardutén ikasleen tutoretza, gainbegiraketa eta ebaluazioan parte hartzen duten irakasleek garatutako jarduera aztertu eta gero, ikusten da 2010-11 ikasturtean orotara kontzeptu honengatik 1.548 kreditu zenbatu direla.

Beste alde batetik, ikastegiek irakaskuntza era honen gestioan berenganatu duten esperientziak, irakats jarduera horiek gainerako irakaskuntza ohikoaren moduan tratatzera garamatza. Zehazkiago, gomendagarri deritzogu biziki eta, gestioaren ikuspuntutik, egingarri jarduera honetako irakats kredituak beroriek garatu direneko akademi ikasturtean berean zenbatu eta esleitzeari.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, eta Irakasleen errektoreordeak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak honakoa

## ERABAKI DU:

**Lehenengo artikulua.-** Indarrean diren ikasketa planetan agerturiko practicum eta kanpoko praktika nahitaezkoetako jardueren kreditu bidezko aintzatespena ezartzea UPV/EHUko irakasleen banakako irakats betebeharren barruan, I. eranskinean xedaturikoaren arabera.

**Bigarren artikulua.-** Practicum eta nahitaezko praktiketako jarduerengatiko irakats betebeharrak jarduera garatzen deneko akademi ikasturtean zenbatu eta esleituko dira.

**Xedapen iragankorra.-** 2011-12 akademi ikasturtean zehar, practicum eta nahitaezko praktiketako irakaskuntza eta gestioan esku hartzen duten irakasle eta ikertzaileek jaso egingo dituzte beren irakats betebeharretan bai 2010-11 ikasturtean zehar era honetako jardueretan egindako kreditu diferituak, bai aurtengo ikasturtean egindako jarduerei dagozkienak. Bikoiztasun hori, ordea, soil-soilik 2011-12 ikasturtean zehar jazoko dena, ez da aintzat hartuko, ukitutako sailei irakaskuntzarako bitarteko berriak hornitzerakoan, ez eta sor litezkeen ordezkapen plazak betetzerakoan ere.

Leioa, 2011ko abenduaren 22a

ERREKTOREA

Iñaki Goirizelaia Ordorika

IDAZKARI NAGUSIA

Eva Ferreira García

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

**ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE LA UPV/EHU, EN SU SESIÓN DE 22 DE DICIEMBRE DE 2011, EN RELACIÓN AL RECONOCIMIENTO DE ENCARGO DOCENTE POR PRACTICUM**

El Consejo de Gobierno aprobó, en sesión celebrada el pasado 5 de octubre de 2006, la propuesta de acuerdo por la que se establecen reconocimientos en créditos en el encargo docente para el profesorado con dedicación completa por actividades docentes, investigadoras y de gestión. En dicha propuesta no se incluía la modificación en el reconocimiento de créditos por actividades de practicum y prácticas externas obligatorias de acuerdo a los planes de estudio actualmente vigentes, pese a que esta formaba parte del documento presentado previamente para su discusión en el Consejo de Gobierno del 15 de junio. El motivo para retirar este apartado de la propuesta fue la consideración de que, a diferencia del resto de actividades recogidas para el reconocimiento de créditos, la modificación del reconocimiento en créditos de esta actividad no debía estar sujeta al cumplimiento de los mínimos de investigación establecidos con carácter previo de forma general para el resto de actividades.

En el Consejo de Gobierno celebrado el 17 de abril de 2007 se presentó un borrador de propuesta de acuerdo para su estudio y eventual presentación de enmiendas. Finalizado el plazo para la remisión de las mismas, tras su análisis, se incorporaron la mayoría de las mismas al texto con intención de presentarlo para su consideración en el Consejo de Gobierno de mayo de 2007. La propuesta no llegó a presentarse en Consejo aunque de facto la nueva fórmula de imputación de créditos ha sido utilizada por el Vicerrectorado de Profesorado para la imputación de créditos desde el curso 2008-09.

Además con la implantación de los nuevos grados y de los Masteres Universitarios Oficiales el número de horas dedicadas al practicum o prácticas externas obligatorias ha aumentado. Tras el análisis de la actividad desarrollada por el profesorado que participa en la tutoría, supervisión y evaluación del alumnado que realiza estas actividades con carácter obligatorio dentro de los planes de estudios correspondientes, se observa que durante el curso 2010-11 se imputaron un total de 1.548 créditos por este concepto.

Por otro lado, la experiencia adquirida por los centros en la gestión de este tipo de docencia nos lleva a la necesidad de tratar este tipo de actividades docentes como al resto de la docencia regular. Más concretamente, se considera altamente recomendable y factible desde el punto de vista de la gestión imputar los créditos docentes de esta actividad en el mismo curso académico en el que se desarrolla.

Así, considerando lo anteriormente expuesto, a propuesta del Vicerrectorado de Profesorado, el Consejo de Gobierno

**ACUERDA**

**Artículo uno.-** Establecer el reconocimiento en créditos para las actividades de practicum y prácticas externas obligatorias en los planes de estudios actualmente vigentes dentro del encargo docente individual del profesorado de la UPV/EHU, de acuerdo a lo dispuesto en el Anexo I.

**Artículo dos.-** Imputar el encargo docente por las actividades de practicum y prácticas obligatorias en el curso académico en el que se desarrolla la actividad.

**Disposición Transitoria.-** Durante el curso académico 2011-12, el PDI implicado en la docencia y gestión del prácticum y prácticas obligatorias verá imputado en su encargo docente tanto el encargo diferido por la realización de este tipo de actividades durante el curso 2010-11 como el encargo correspondiente a las actividades del curso corriente. Esta duplicidad, que se producirá únicamente durante el curso 2011-12, no se tendrá en cuenta a la hora de otorgar nuevos recursos docentes a los departamentos afectados ni tampoco para la cobertura de plazas de sustitución que pudieran sobrevenir.

Leioa, 22 de diciembre de 2011

EL RECTOR

Iñaki Goirizelaia Ordorika

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

LA SECRETARIA GENERAL

Eva Ferreira García

## ANEXO I

### Identificación de las tareas de gestión del practicum

- Organización y planificación de las prácticas. Determinación de:
  - Número de puestos de prácticas para realizar la oferta anual de acuerdo con lo establecido en el plan de estudios.
  - Número de tutoras y tutores necesarios.
  - Duración de las prácticas y encaje en el calendario académico del centro.
- Gestión administrativa de las prácticas.
  - Propuesta de firma de convenios de colaboración (contacto, propuesta, redacción, firma).
  - Grabación de los créditos en GAUR.
  - Registro de la asignación de tutoras y tutores al alumnado, del lugar de prácticas de cada alumna o alumno, del inicio y fin de las mismas.
- Realización de las prácticas.
  - Coordinación de las prácticas, contacto con la o el responsable en las entidades colaboradoras para la atención de las incidencias que puedan producirse.
  - Encuestas de evaluación de la actividad por parte de las tutoras y tutores, el alumnado y la persona responsable en la entidad en la que se realizan las prácticas.
  - Informe final anual.
  - Tramitación académica de la evaluación y calificación del alumnado.
- Estas tareas son, habitualmente, responsabilidad de la persona del equipo de dirección del centro que tiene asignado este cometido. Para ello utiliza los recursos materiales y humanos de los que dispone el centro (en estrecha colaboración con el o la administradora del centro).
- En aquellos casos en los que no se haya hecho, será necesario definir los **indicadores** que permitan realizar la evaluación de esta actividad, así como los **mecanismos de control y evaluación** tanto para la actividad realizada por el alumnado, como para la del profesorado y la de las entidades colaboradoras, todo ello para asegurar la calidad, la eficacia y la eficiencia de estas actividades.

**Propuesta:**

Conforme a lo establecido en el reglamento del centro, se formará una comisión de practicum o prácticas externas obligatorias. Para aquellos casos en los que el reglamento no contenga previsiones al respecto, esta comisión estará formada por una profesora o profesor de cada una de las titulaciones que contenga dentro de su plan de estudios este tipo de prácticas ( o en su caso, de las especialidades de practicum que se desarrollan de forma consolidada en la titulación), además de por la decana o decano, directora o director del centro o persona en quien delegue y la administradora o administrador del centro o persona en quien delegue.

Según el criterio establecido por dicha comisión, se asignará entre el profesorado que forme parte de esta comisión el número de créditos que resulte de la aplicación de la siguiente fórmula:

**Nº créditos = Número de créditos totales por practicum asignados al centro * 0,2**

Estos créditos por la gestión del practicum serán asignados en bloques de 3 créditos como mínimo y de 6 como máximo, exceptuando los que queden como resto.

### Tareas que debe realizar el profesorado

- Independientes del número de alumnas y alumnos:
  - Presentación al alumnado y orientación inicial.
  - Contacto con la coordinación general con las y los instructores de las empresas, entidades o instituciones. Normalmente se realiza una visita al lugar donde se dasarrollará la práctica.
  - Asistencia y participación en talleres y/o seminarios o de formación del profesorado en la labor tutorial, de acuerdo con lo establecido por el centro.
  - Informe final.

- Dependientes del número de alumnas y alumnos:

    - Contacto para la coordinación y seguimiento con las y los instructores de las empresas, entidades e institucione4s. Habitualmente, tres veces al año.
    - Seminarios de supervisión del grupo de alumnas y alumnos asignado sobre el desarrollo de las prácticas.
    - Atención a posibles incidencias. Entrevistas y/o reuniones de trabajo con la persona responsable en la entidad.
    - Atención al alumnado, habitualmente, en el horario de tutoría establecido anualmente.
    - Evaluación y calificación del alumnado.

**Propuesta:**

El reconocimiento individual a cada profesora o profesor se determina de acuerdo con la siguiente fórmula:

**Número de créditos = 0,02 * K * A,**

donde

- K = Número de créditos en el plan de estudios del practicum o prácticas externas obligatorias
- A = Número de alumnas y alumnos asignados.

El número máximo de créditos imputables a una profesora o profesor por actividades de practicum será de 12, excepto para las personas que formen parte de la comisión de practicum del centro, en cuyo caso el máximo será de 15 créditos.

## I. ERANSKINA

### Practicumaren gestio lanen identifikazioa

- Praktikak planifikatu eta antolatzea. Honako hauek zehaztu:
  - Ikasketa planean ezarritakoarekin bat etorrita, urteko eskaintza egiteko praktikarako postuen kopurua.
  - Beharko diren tutoreen kopurua.
  - Praktiken iraupena eta ikastegiaren akademi egutegian txertatzea.
- Praktiken administrazio gestioa.
  - Lankidetza komenioak sinatzeko proposamena (harremana, proposamena, idazketa, sinaketa).
  - Kredituak GAUR aplikazioan grabatzea.
  - Tutoreak ikasleei esleitzeko, ikasle bakoitzaren praktika tokien eta hauen hasiera eta amaieraren erregistroa.
- Praktiken egitea.
  - Praktiken koordinazioa, erakunde laguntzaileetako arduradunekiko harremana, gerta litezkeen gorabeheren konpontzeko.
  - Tutoreek, ikasleek eta praktikak egin direneko erakundeko arduradunek jarduera balioesteko inkestak.
  - Urteko azken txostena.
  - Ikasleen balioespen eta kalifikazioaren tramitazio akademikoa.
- Zereginok, ikastegiko zuzendaritza taldearen barruan eginkizun hauek bere dituen pertsonak egin ohi ditu. Hauetarako ikastegian diren baliabide materialak eta giza bitartekoak erabiltzen dira (ikastegiko administrariarekiko lankidetza estuan).
- Halakorik egin ez denean, jarduera honen balioesteko erabiliko diren **adierazleak** beharko dira definitu, bai eta **kontrol eta ebaluazio mekanismoak** ere, bai ikasleek nola irakasleen eta erakunde laguntzaileek eginiko jarduerari dagokionez, hori guztiori jarduera hauen kalitatea, eraginkortasun eta efikazia bermatuko badira.

**Proposamena:**

Ikastegiko arautegiek ezarritakoari jarraiki, eratu egingo da practicum edo kanpoko praktika nahitaezkoetarako batzorde bat. Arautegiak honen inguruko aurreikuspenik jasotzen ez duenean, batzorde horretako osakideak izango dira, era honetako praktikarik ikasketa planaren barruan duen titulazio bakoitzeko (edo, hala balegokie, titulazioan modu finkatuaz irakasten diren practicumaren espezialitate bakoitzeko) bana irakasle, ikastegiko dekano edo zuzendaria edo hauek ordezka dezaketen pertsona eta ikastegiko administraria edo berau ordezka dezakeena.

Batzorde honek ezarritako irizpidearen arabera, batzordekide den irakasle bakoitzari honako formula honen aplikaziotik aterako litzatekeen kreditu kopurua esleituko zaio:

**Kreditu kopurua = Ikastegiari esleituriko practicumetako kredituen kopurua * 0,2**

Practicumaren gestioarengatik kreditu hauek, gutxien dela, 3 kreditutako bloketan eta, gehienez, 6 kreditutako bloketan esleituko dira, salbu hondar gisa geratzen direnak.

### Irakasleek egin beharreko zereginak

- Ikasleen kopurua aintzat hartu gabe:

  - Ikasleentzako aurkezpen eta hasierako orientazioa.
  - Enpresa, erakunde edo instituzioetako instruktoreen koordinazio orokorra. Normalean, praktika egiteko tokia bisitatzen da.
  - Irakaslean tutoretza lanerako prestatzeko tailer eta/edo mintegietara joatea eta parte hartzea, ikastegiak ezarritakoarekin bat etorrita.
  - Azken txostena

- Ikasleen kopurua aintzat hartuta:

  - Enpresa, erakunde edo instituzioetako instruktoreekiko koordinazio eta jarraipenerako hartu-emana. Orobat, hiru bider urtean.
  - Esleitutako ikasleen taldea gainbegiratzeko mintegiak, praktiken garapenari dagokionez.
  - Sor litezkeen gorabeherak ebatzi. Erakundeko arduradunarekin egin beharreko elkarrizketak edo/eta lan bilerak.
  - Ikasleekiko arreta, normalean urtero ezarritako tutorego ordutegiaren barruan.
  - Ikasleen ebaluazioa eta kalifikazioa.

**Proposamena:**

Irakasle bakoitzari honako formula honen arabera esleituko zaizkio kredituak:

**Kreditu kopurua = 0,02 * K * I,**

non

- K = Practicum edo kanpoko praktika nahitaezkoen ikasketa planean adierazitako kreditu kopurua
- I = Esleitutako ikasleen kopurua.

Irakasle bati practicumeko jarduerengatik gehienez zenbat dakizkion kredituak 12 dira, ikastegiko practicum batzordeko kide diren pertsonen kasuan izan ezik, hauei esleitu ahal dakien kopurua 15 izanik.